



ARANTZAKO UDALA

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7
31790 ARANTZA (Nafarroa)
© 948 634 005
☎ 948 634 192
arantza.udala@arantza.eu
www.arantza.eu

UDALA ERATZEKO ETA ALKATEA AUKERATZEKO OSOKO BILKURA.

2015EKO EKAINAREN 13KO BILERAREN AKTA

Deialdia: Lehenengoa.

Eguna: 2015.06.13.

Ordua: Goizeko 11:00etan.

Tokia: Herriko Etxeko areto nagusia.

Bertaratuak:

Juan Miguel Almandoz Mitxelena jn.

M. Carmen Peña Lizarazu and.

Ander Almandoz Indakoechea jn.

Igor Ugalde Salazar jn.

Jose Fco.Javier Mitxelena Ordoki jn.

Juan M. Gonzalez Burguete jn.

Iñigo Sarrias Zoco jn.

Bertaratu ez direnak:

Inor ere ez.

Idazkaria:

M. Jose Larraioz Ariztegi and.

Aztergaiak:

1.-Adineko mahaia eratzea.

2.-Udal berriaren eraketa.

3.-Alkatearen aukeraketa.

1.-ADINEKO MAHAIA ERATZEA.

Ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren 195. artikulua dioenari jarraituz, zinegotzi-egiaztagutunak Idazkaritza Orokorrean jaso ondoren, bertaratutako zinegotzietan zein den gazteena eta zein zaharrena aztertu da, bi zinegotzi horiek adineko mahaia osa dezaten, udal-idazkariarekin batera.

Adineko mahaia era honetan osatu da:

-Zinegotzik zaharrena: Juan Miguel Almandoz Mitxelena jn. .

-Zinegotzik gazteena: Ander Almandoz Indacoechea jn.

-Idazkaria: M. Jose Larraioz Ariztegi.

2.-UDALA ERATZEA.

Adineko mahaia zinegotzi-egiaztagutunak aztertu ditu, bai eta Eskualdeko Hauteskunde Batzordeak udaletxera bidalitako ziurtagiriak ere, zinegotzi-egiaztagutunak eta ziurtagiriak bat datozela baieztatzeko.

Horren ondotik, zinegotziek Konstituzioa beteko dutela zin egin edo hitza eman dute modu honetan, Idazkariak legeak agintzen duen galdera hau egin ondoren:

“Zin edo promes egiten duzue zinegotzi karguaren betebeharrak erregearekiko leialtasunez zintzo beteko duzuela eta Estatuaren funtsezko araua den konstituzioa bete eta betearaziko duzuela?”

-Juan Miguel Almandoz Mitxelena jaunak., hitz eman du, legeak behartuta.

-M.Carmen Peña Lizarazu andreak, hitz eman du, legeak behartuta

-Ander Almandotz Indakoechea jaunak, hitz eman du, legeak behartuta

-Igor Ugalde Salazar jaunak, hitz eman du, legeak behartuta

-Jose Fco.Javier Mitxelena Ordoki jaunak, hitz eman du, legeak behartuta

-Juan M.Gonzalez Burguete jaunak, hitz eman du, legeak behartuta

-Iñigo Sarrias Zoco jaunak, hitz eman du, legeak behartuta

Ondorioz, zinegotzien gehiengo osoa Osoko Bilkuran dagoela, adineko mahaiak Udala eratutzat jo du.

Hona hemen zinegotzien zerrenda:

-Juan Miguel Almandoz Mitxelena jn.

-M.Carmen Peña Lizarazu and.

-Ander Almandoz Indakoechea jn.

-Igor Ugalde Salazar jn.

-Jose Fco. Javier Mitxelena Ordoki jn.

-Juan M. Gonzalez Burguete jn.

-Iñigo Sarrias Zoco jn.

3.-ALKATEAREN AUKERATZEA.

Ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren 196. artikuluari jarraiturik, adineko mahaiak alkatea aukeratzeko baldintzak gogorazi ditu:

-“Zinegotzi diren zerrendaburuak dira hautagai.

-Lehen bozketan, gehiengo osoa lortzen duena izango da alkate.

-Horrela gertatzen ez bada, udal-hauteskundeetan gehien bozkatutako zerrendako burua den zinegotzia izango da alkate.

-Gehien bozkatutako zerrenda bat baino gehiago bada, zozketaz ateratzen den zerrendako buru den zinegotzia izango da alkate.”

Horrela bada, Juan Miguel Almandoz Mitxelena jauna (EH Bildu) taldearen zerrendaburu izanik, isilpeko bozketari ekin zaio eta lortutako botoak hauek dira:

Juan Miguel Almandoz Mitxelena jauna: 7 boto.

Bozketaren arabera, JUAN MIGUEL ALMANDOZ MITXELENA jauna da alkate.

Ondoren, Juan Miguel Almandoz Mitxelena jaunak onartu du alkate izatea. Horrela bada, Udalbatza aurrean duela agindu ere agindu du kargu hori beteko duela, kargu horrek berekin dakartzan ahalmen, eskubide eta betebeharrak guztiekin. Horrenbestez, Juan Miguel Almandoz Mitxelena jaunak hartu du alkate-kargua eta hitz eman du, legeak behartuta, alkate karguaren betebeharrak erregearekiko leialtasunez zintzo beteko duela eta Estatuaren funtsezko araua den konstituzioa bete eta betearaziko duela .



ARANTZAKO UDALA

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7
31790 ARANTZA (Nafarroa)
© 948 634 005
948 634 192
arantza.udala@arantza.eu
www.arantza.eu

Jarraian, idazkariak hiru agiri hauek aurkeztu dizkio Udalbatzari, zinegotziek azter ditzaten:

- kutzako kontaketa agiria.
- Udalak dirutan nahiz baloretan dituen izakinen egiaztagiria.
- Udal-ondarearen inbentarioa.

Azkenik alkateak eskerrak eman die hauteskondeetan bere taldeari konfidantza eman duten guztiei eta pazientzia eskatu botoen bidez bere haserrea erakutsi dutenei (hainbat boto baliogabe emanez); horien haserrea baretzeko lan txukun, argi eta garbi gauzak eginez eta erranez.

Udal berri eta irekia nahi duela gaineratu du eta kezka idatziz agertzea ere erantzun bat denei emanez.

Herritarrei eskatu nahi die dauden arauak betetzeko, ez obligazioz, bete behar direlako baizik, baino inorek agindu gabe.

Aipatu du ere bere helburua elkarbizitza sendotu eta hobetzea dela, denei adituz.

Agertu diren anonimoak direla eta, erran du elkarte fantasma baten itxura dela eta eskatu du aurpegia emateko, aukera izan zutela eta ez direla kapaz izan deus egiteko (talde bat aurkeztea); nirekin eta Jose Javier Ordoki jaunarekin sartu direla miña egiteko helburu bakarrarekin. Bere ustez idatziz erantzun egoñi bat eman behar zaie eta ikusi ia segitzen duten edo ez anonimoak agertzen; gaizki ari denak lehen edo beranduagoa erortzen baita. Ikusten da ez dela jende anitz atzetik, bertzalde eginen zuten talde bat, aukera pareganea izan dute eta.

Bertzerik gabe, goizeko 11:30ak izanik, bilera amaitutzat jo dugu eta eztabaidatu eta erabakitakoa jasota geratzeko, agiri hau egin dut neronek, idazkariak, egiaztatuta.

O.E. ALKATEAK,
Juan Miguel Almandoz Mitxelena.



